

Unibertsitateak aitortu egin du Loiolako Herri Irratiaren meritua

1960ko hamarkadan era askotako euskarazko irratsaioak egin zituen. «Irrati komunitario moduan hartu dezakegu», dio Irati Agirreazkunaga ikerlariari

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. «Loiolako Herri Irratia euskarazko irratigintzaren eskola izan zen. Gainera, irradi komunitario moduan hartu dezakegu, herritarren parte-hartzea zegoelako eta finantzazioa ere herritarrengandik lortu zuelako, bost mila bazkide lortu baitzituen, hilean 25 pezetako kuota ipintzen zutenako». Hau esan du Irati Agirreazkunaga Onaindia EHUko irakasleak (Bilbo, 1986) bere liburua aurkeztean, 'Euskarazko irradi kazetariaren hitza eta hotsa garai zailetan: 1956-1976'. Pamiela etxeak eman du argitara, Universitas bildumaren barruan.

Loiolan jardundako hainbat lagun elkartzetatu ditu Agirreazkunagak. Haien hitzak izan ditu iturri nagusi ikerketa-lan honi ekitean. Lana Joxxo Larrañaga ikerlariaren zuzendaritzaren pean burutu du.

Atzoko aurkezpen ekitaldira azaldu ziren irradi hartan jardundako lagun batzuk, eta Donostiako Herri Irratioko batzuk ere bai, hala nola Ignazio Arregi, Joxemari Iriondo, Karmelo Otaegi, Mari Karmen Garaizabal, Miguel Zendoia eta Joxe Ramon Beloki. Agirreazkunagaren esanetan, «ahots hauen berreskurapena izan da lan honen helburuetako bat».

«Loiolako Herri Irratia elebiduna zen, baina publiko eskaldun bati begira egiten zen programazioa. Nahiz elebiduna izan, irradi eskaldun bezala pertzibitzen zen», esan du ikerlariak. Gero, 1980. hamarkada hasieran Euskadi Irratia sortu zenean, bertara aldatu ziren Loiolako profesional batzuk. Agirreazkunagaren ustez, «gaur egungo irratigintzaren ispilu izan zen Loiola».

Loiolako Herri Irratiak 1961ean hasi zuen bere jarduna, jesuiten babesarekin. Hau zuen lan-taldea: Juan



Aurrean, Irati Agirreazkunaga. Atzean, Otermin, Arregi, Zendoia, Otaegi, Iriondo eta Beloki. :: MIKEL FRAILE

Lekuona (zuzendaria), Luis Terrado Aragoiko esataria, Pilartxin Forcada, Justa Egaña, Maritxu Martinez, Karmelo Otaegi, Joxemari Iriondo eta Itziar Sagazazu. Soinuaren kontrollean, berriz, Marilo Azkune eta Maite Quintana aritzen ziren. 1967an Ignazio Arregi sartu zen taldean, eta hari esker asko hobe

EUSKARAZKO IRRATI KAZETARIEN HITZA ETA HOTSUA...
IRIATI ARGITARRAZKUNAGA
Argitalpena: Pamiela.
Orrialdeak: 158.
Prezioa: 14 euro.

betu zen programazioa, Milanen irradi-ikasketak eginda baitzitorren. Lehenengo urteetan ez ziren asko zian euskarazko saioak, jakinik ugarituz gero agintariekiko arazoak etorriko zirela. 1962an hasi zen 'Andre-gizonak' esketx bilduma entzutea. Imanol Eliasek idazten zituen irratsaioak, eta senar-emaztearen arteko eztabaidak agertzen ziren. Antzezpena, berriz, Karmelo Otaegi eta Itziar Sagazazu egin ohi zuten.

Dena ez zen laudorio eta esker ona izaten. Atzoko aurkezpenen joxemari Iriondok esan bezala,

«euskaraz jardutea, baserriarrentzat jardutea zela uste zuten batzuek. Eta bertsolariak ipintzen bazenituen, gauza rural bat egiten ari zinen». Orain, Iriondo pozik dago unibertsitate-liburu hau etorri delako: «Gure aipamenik ez zuen kristorik egiten».

Lehenengo isuna

Eta isunak ere izaten ziren. Lehenbizikoa, 1962an, 'Gernikako arbol' osorik ipini zutelako. Garaitsu hartan, Valencia Remón gobernadore zibila mehaxu egin zion iratiari: Joxemari Iriondo kanporatu egin behar zuen, bestela irratia itxi-ko zuten. Kazetari hau asko ari zen nabarmentzen, lan guztia euskaraz egiten zuelako, eta bertsolariak eta trikitilariak eramanen zituelako irratia.

Erosarioa errezatzerakoan euskaraz errezatzea normala zen elizetan, baina letaniak latinez izan ohi ziren. Irrati honek euskaraz ematen hasi zenean, hurrengo egunean bertan izan zen salaketa bat, apar-

teko eraginik izan ez zuena, hala ere.

1965ean ezusteko handia etorri zitzaion iratiari. Estatuak, dekretu bidez, uhin ertainean emititzen ari ziren irati txikiak FM delakora pasatzera behartu zituen. Seguru asko, Loiolakoa izan zen, Espainia osoan, FMn emititu zuen lehena. Gobernuaren erabaki horren atzean arrazoi politikoak zeudela uste dute, izan ere gaztelania hutsean ari ziren beste batzuek lasai asko jarraitu baitzuten emititzen. 1965etik 1966ra itxita egon zen Loiola, eta bertako enpleguak langabeziara pasa. Orduan, antena ipintzeko eta teknologia berritzeko dirua behar zela eta, bazkide-kanpaina bati ekin zioten, eta bost mila bazkide batu. 1977an da beste mugaria: lehergai-lua ipinita, txikitu egin zuten Itxumendiko antena. Baina ezbehar horretatik ere ateratu zuten aurrera, eta 1976an, Loiola eta Donostiako Herri Irratiako profesionalak 24 ordu euskaraz programazio anbiziotsua burutu zuten.

Gaur hasiko da Literatura, Markos Gimeno Vesgaren ekitaldi batekin

:: DV

DONOSTIA. Gaur hasiko da Literatura. Aurtengo gaila 'Ispilua' da, eta, hain zuzen, palindromoekin -hitzak eta esaldiak ispilu aurrean jarrita- jolasten duen Markos Gimeno Vesgaren emango dio gaur hasiera Zarazako hirugarren Literatura honi. Euskalduna tabernan izango da saioa, 19:30ean hasita.

Igande gaurer bitartean, euskal letren plaza bihurtuko da Zarazaten erdigunea. Egitarau oparora prestatu dute, eta denak, heldu zein haur, daude gonbidatuta hitzekin gozatzera. Aurtengo leloa, «Literaturia gure isla da», honela azaldu du Ana Galarraga antolatzaileak: «Askotan gertatzen da, irakurtzen hasi eta zeure burua deskubritzen duzu, batabatean, esaldiren batean, pasareten batean... konturatzeko ez zinen alderdiren bat deskubritzen duzu. Eta Literaturiako egun horietan ere, jendea eman nahiko genioke bere burua ezagutzeko aitzakiaren bat, ordua arte ezagutzen ez zuten alderdi hori».

Hiru gune nagusi izango ditu jaialdiak. Ikuskizun nagusiak taularatuko dituen Modelo aretoa bata, liburu aurkezpenak jasoko dituen Garaio liburu-denda beste, eta gainera haurren txokoa kokaleku izango duen Musika Plaza.

Egun printzipalak larunbata eta igandea izango dira. Modelo aretotik pasako diren artean izango dira Bea Salaberri, Katixa Dolhare, Bihotz Bakartien Kluba, Huts Teatror, Manex Agirre, Gaizka Amondarain, Lou Topet, Iban Zaldúa, Miren Gorrotxategi, Fito Rodríguez, Ramon Agirre, Amagoia Gurrutxaga, Aina Lara, Lorea Agirre eta Josu Landu.

Garaio liburu-dendan, berriz, goiz eta arratsalde izango dira liburu-aurkezpenak. Besteak beste, 'Koademioa zuri' (Arantxa Iturbide), 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' (Alaine Agirre), 'Kaosaren ederra' (Joseba Peña), 'Patagoniara Hazpamen barrena' (Kepa Altonaga) eta 'Surlflaria eta paradisia' (Iñigo Urdinaga).

VISILLO E-SHIELD

**LA BARRERA CONTRA LA RADIACIÓN ELECTROMAGNÉTICA
PROPIEDADES BENEFICIOSAS PARA LA SALUD**

La Universidad Politécnica de Valencia y su Departamento de Telecomunicaciones y ALTEX Instituto Tecnológico Textil, han certificado la efectividad del Visillo E-SHIELD como barrera de la Radiación Electromagnética.

Políg. Industrial Iturrin. Abendaño kalea, 39-40. **LEZO** | 607 143 143 | 943 321 510 | itzalpe@itzalpe.com | www.itzalpe.com